

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2020

EUSKERA POESIA 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

Azalaren itzala

Ainhoa Andueza San Miguel

Itzalaren ertzak
bilatu nahi ditut
inguratzen nauten laino zerratuen artean.
Kamustutako ertzak,
zorrozutakoak.

Nire itzalaren eredu izan nahi dut,
senti nazala,
senti dezala
nire oinen amiltzea, batzuetan,
pauso dardartietan.

Lurrean sortutako arraildurak, bestetan.
Hondamendi zein barealdi izan naitekeen honetan
lainoa arrakaletan galtzera bideratuta dagoenean.

Senti dezala
nire balaztatzearen desoreka
ertzei heltzen diedalarik
ertzak ere helduleku bihurturik.
Nola zorrozten naizen,
zorroztasunaren kurbadura ezkutuetan bada ere
eta bihurguneetan barneratzen naizen,
ez baitago bide zuzena aukeratzerik.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

Azala eta itzala
barne-desorekak bereizten dituenan,
edo batzen.
Aurkitu nahi ditut
nire itzalaren ertzak
nik adina ertz ote dituen
edo bata bestearen oreka besterik ez garen.